



JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Fundaciones del País Vasco

**FUNDAZIOAREN ESTATUTUA**

**ESTATUTOS DE LA FUNDACIÓN**

**"HEDA FUNDAZIOA"**

**"HEDA FUNDAZIOA"**

**I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

**CAPITULO I.- DISPOSICIONES GENERALES**

**1. Artikulua. Sorkuntza, izena eta iraupena.**

'HEDA FUNDAZIOA' izenaz, izaera pribatu eta mugarik gabeko iraupeneko Fundazio kultural eta soziala sortzen da.

**Artículo 1.- Constitución, denominación y duración.**

Bajo la denominación de "HEDA FUNDAZIOA", se constituye una Fundación cultural y social de carácter privado y de duración indefinida.

**2. Artikulua. Eraentza juridikoa, nortasun eta gaitasun juridikoak.**

Fundazioak nortasun juridiko propio eta independentea du, eta gaitasun juridiko eta jarduteko osoak izango ditu, hauen muga bakarrak fundatzaileek Fundazioaren sortzeko egintzan azaldutako borondatearen adierazpenean, Estatutu hauetan eta aplikatzen diren legezko xedapenetan ezarrita-koak dituela, bereziki, 12/1994 Legean, ekainaren 17ko Euskal Herriko fundazioei buruzkoan.

**Artículo 2.- Régimen jurídico, personalidad y capacidad jurídicas.**

La Fundación tiene personalidad jurídica propia e independiente y dispondrá de plena capacidad jurídica y de obrar, sin otras limitaciones que las establecidas en la expresión de la voluntad manifestada por los fundadores en el acto fundacional, en los presentes Estatutos y en las disposiciones legales que le sean de aplicación, en particular la Ley 12/1994, de 17 de junio, de fundaciones del País Vasco.

**3. Artikulua. Fundazioaren helburuak betetzea.**


Fundazioaren helburuak eta hauei dagokien guztia betetzea Fundazioaren Patronatu Zuzentzailearen ardura da, aurreko artikuluan aipatutako mugen barnean.

**Artículo 3.- Cumplimiento de los fines fundacionales.**

Con las limitaciones prevenidas en el artículo anterior, el cumplimiento de los fines fundacionales y todo cuanto a estos atañe, queda confiado al Patronato Rector de la Fundación.

**4. Artikulua. Lurralde-eremua.**

**Artículo 4.- Ámbito territorial**



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

A 3726471



Fundazioaren jarduerak Euskal Herrian gauzatzeko da nagusiki.

La Fundación desarrollará principalmente sus actividades en Euskal Herria.

#### 5. Artikulua. Egoitza.

HEDA FUNDAZIOAREN egoitza Martin Ugalde Kultur Parkea, Gudarién etorbidea, z/g, Andoain (Gipuzkoa) dago, nahiz eta Patronatu Zuzentzaileak berori aldatzeko gaitasuna izango duen. Fundazioa, Patronatuak hala erabakiz gero, beste herri batzuetan ere kokatu ahal izango da, bere lana egin ahal izateko etxe eta lan guneak sortuz.

#### Artículo 5.- Domicilio.

La Fundación "HEDA FUNDAZIOA" tendrá su domicilio en Martin Ugalde Kultur Parkea, Gudarién etorbidea, s/n, de Andoain, si bien el Patronato Rector tendrá facultades para cambiarlo ulteriormente. La Fundación, para el desarrollo de su labor, podrá crear establecimientos y dependencias en otras ciudades, cuando así lo acuerde el Patronato.

#### 6. Artikulua. Helburua

Euskara, euskal kultura eta euskal komunikazioa indartzeko eta sustatzeko sortu da HEDA FUNDAZIOA.

#### Artículo 6.- Objeto.

La Fundación HEDA se ha constituido con el objetivo de desarrollar y promocionar el euskara, la cultura vasca y la comunicación en euskara.

Beraz, Fundazioaren asmoa da, euskara eta euskal kulturaren normalizazio eta garapena bermatzeko duten egitasmo, proiektu, enpresa edo ekimen oro, sustatu, lagundu, partekatu eta bilbatzea.

En este sentido, es propósito de la Fundación estimular, colaborar, participar y/o promover toda clase de iniciativas, proyectos, empresas o programas que garanticen la normalización del euskara y de la cultura vasca.

Hizkuntzaren normalizazio honen funtzio sozial guztietan bete behar dela kontuan hartuta, fundatzaileok arreta berezia izango dute euskara gara dadin komunikabideetan, haiek baitira hizkuntza eta kulturaren hedatze eta gizarteratze oinarritzko euskarriak.


Los fundadores, considerando indispensable la normalización del euskara en todas las funciones sociales, observarán especial atención al desarrollo de la misma en los medios de difusión social, soportes básicos de transmisión y socialización de la lengua y la cultura.

#### 7. Artikulua. Helburuaren garapena.

Fundazio-helburuari dagozkion jar-

#### Artículo 7.- Desarrollo del objeto.

Las actividades integrantes del



duerak egoki deritzon eran egin ahal izango ditu Fundazioak, beste zenbait entitate edo erakundetan parte hartuz ere bai; muga bakarrek legeak aurreikusitakoak edo Sortze-Gutunean edo Estatutu hauek jasotako aurreikuspenetatik ondoriozta daitezkeenak izango dira bakarrik.

Honela bada, Fundazioak bere helburuen garapena honako era hauetan egin ahal izango du, legeak ezartzen dituen mugen barruan betiere:

a) Fundazioak berak zuzenean, bere organoen bidez, Patronatuak aldira prestatu eta onartu behar duen jarduera-egitasmoa gauzatzuz.

b) Zeharka, beste zenbait entitate, elkarte eta erakundetan parte hartuz.

c) Legeak baimentzen dituen beste Fundazio, Elkarte, Kooperatiba, Sozietate edo beste edozein izatearako entitateak sortu edo sortzen lagunduz.

d) Fundazioaren helburuak betetzeko baliagarri izan litezkeen beste entitate edo pertsona juridiko edo fisikoaren jardueretan parte hartuz, bereziki fundazioaren inguruneak direnean.

e) Xede hauek lortzeko asmoz, Fundazioak laguntza ekonomikoa eta aholkularitza eta lankidetzaren profesiona eskaini edo eman ahal izango ditu. Era berean, bere helburuak bete ahal izateko, legatu, dohaintza eta subentzioak ematea

objeto fundacional pueden ser desarrolladas por la Fundación del modo que crea oportuno, incluida la participación en otras entidades u organizaciones, sin otras limitaciones que las legalmente previstas o las que se deriven de las previsiones contenidas en la carta fundacional o en los presentes Estatutos.

En tal sentido, el desarrollo del objeto de la Fundación podrá efectuarse, dentro de los límites permitidos por la Ley:

a) Por la propia Fundación directamente a través de sus Órganos, siguiendo un programa de actuación que deberá preparar y aprobar periódicamente el Patronato.

b) Indirectamente, a través de la participación en otras entidades, sociedades u organizaciones.


c) Creando o cooperando a la creación de otras Fundaciones, Asociaciones, Cooperativas, Sociedades u otras entidades de cualquier naturaleza, que la Ley permita.

d) Participando en el desarrollo de las actividades de otras entidades o personas jurídicas o físicas que, de algún modo, puedan servir a los fines de la Fundación, especialmente en el entorno de la misma.

e) Con tal finalidad, la Fundación podrá aportar o conceder ayudas económicas, asesoramiento y cooperación profesional. Asimismo, estimulará el otorgamiento de legados, donaciones y subvenciones para el cumpli-



4. MOTA  
4.º CLASE



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Fundaciones del País Vasco

Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

A 3726470

sustatuko du.

miento de sus fines fundaciona-  
les.

#### 8. Artikulua. Fundazioko kideak.

Sortzaileak (fundatzaileak ere deituak), kolaboratzaileak edo ohorezkoak izan daitezke Fundazioko kide.

#### Artículo 8.- Integrantes de la Fundación.

Los integrantes de la Fundación pueden ser creadores (también denominados fundadores), colaboradores u honoríficos.

#### 9. Artikulua. Sortzaileak.

Fundatzaileek Sortze-Gutunaren izaera eman ahal izango diote eskritura publikoari, honela, beste zenbait pertsona fisiko nahiz juridikori ere sortzaile-izaera berarekin atxikitzeko aukera emanez.

Izaera hau lortzeko, sortze-eskrituran horretarako zehaztuko den epearen barruan egin beharko da atxikipena, betiere, epe hori gehienez ere bost urtekoa dela, aipatutako eskritura publikoa egilesten den datatik aurrera; hala ere, aipatutako epea Patronatuko kideen hiru laurdenen aldeko botoz gutxitu daiteke.

#### Artículo 9.- Fundadores.

Los fundadores podrán dar a la escritura pública el carácter de carta fundacional, de manera que en tal caso puedan adherirse otras personas físicas o jurídicas con el carácter de fundadores, ostentando dicha cualidad, en el plazo que para formular tal adhesión se fije en dicha escritura fundacional, plazo que no podrá exceder de cinco años a partir del otorgamiento de la escritura pública mencionada, sin obstáculo de que el Patronato pueda limitar dicho plazo por mayoría de tres cuartas partes de sus miembros.

Aurreikusitako epe horretan fundatzaile izaera lortzeko egindako eskaerek Patronatuko kideen hiru laurdenen aldeko botoaz onartuak izan beharko dute. Patronatuak berak erabakiko du kidegaiek egin beharreko ekarpen ekonomikoa zenbatekoa izango den horrelakorik egin beharra dagoenean.


Las solicitudes de adhesión con el carácter de fundadores, dentro del plazo prefijado, deberán ser aprobadas por mayoría de tres cuartas partes de los miembros del Patronato, quien fijará asimismo la contribución económica que los aspirantes hayan, en su caso, de satisfacer.

#### 10. Artikulua. Kolaboratzaileak.

Sortze-eskritura egiletsi ondoren, aurreko artikuluan aurreikusitako epearen barnean, Fundazioaren kide bihur daitezke, kolaboratzaile izaerarekin, fundazioaren helburuak lortzeko jarduera edo ekarpen baliagarriak eskain ditzaketen

#### Artículo 10.- Colaboradores.

Con posterioridad al otorgamiento de la escritura fundacional, e incluso al plazo en el artículo anterior, podrán adherirse a la fundación, con el carácter de colaboradores, aquellas personas físicas y ju-



pertsona fisiko eta juridikoak.

rídicas cuya actividad o contribución pueda favorecer el logro del fin fundacional.

Kolaboratzaile bihurtzeko eskaerek Patronatuko kideen gehiengo osoaren aldeko botoa beharko dute, eta Patronatuak erabakiko du kidegaiek egin beharreko ekarpen ekonomikoa zenbatekoa izango den horrelakorik egin beharra dagoenean.

Las solicitudes de adhesión con el carácter precitado deberán ser aprobadas por mayoría absoluta de los miembros del Patronato, quien fijará asimismo la contribución económica que los aspirantes haya, en su caso, de satisfacer.

#### 11. Artikulua. Ohorezko kideak.

#### Artículo 11.- Miembros honoríficos.

Fundazioaren helburua lortzeko bidean nabarmendu diren edo nabarmentzen ari diren pertsona fisiko edo juridikoak ohorezko kide izendatu ahal izango ditu Patronatuak.

El Patronato podrá nombrar miembros honoríficos a las personas físicas o jurídicas que hayan contribuido o contribuyan de manera destacada a la consecución del objeto fundacional.

### II. KAPITULUA. GOBERNU, ORDEZKAPEN ETA ADMINISTRAZIOA ORGANOA. AHOLKULARITZA BATZORDEA.

### CAPITULO II. GOBIERNO, REPRESENTACIÓN Y ORGANOS DE ADMINISTRACION. CONSEJO ASESOR.

#### 12. Artikulua. Patronatua.

#### Artículo 12.- El Patronato.

Fundazioaren ordezkapena, gobernu eta administrazioa Patronatuari dagozkio erabat, eta aplikatzen dazkizkiokeen indarreko xedapenetan ezarritako mugak soilik izango ditu. Fundazioaren jardueraren erainkortasunez egiteko zuzenbidez legozkiokeen ahalmen eta botere guztiak erabiliko ditu Patronatuak, eta, besteak beste, Estatutu hauek interpretatzekoa.

Sin otras limitaciones que las establecidas en las disposiciones vigentes de aplicación, la representación, el gobierno y la administración de la Fundación corresponden de manera exclusiva al patronato, quien ejercerá todas las facultades y potestades que en Derecho puedan corresponderle para el eficaz desenvolvimiento de la actividad fundacional, entre ellas la de interpretar los presentes Estatutos.

Aurrekoa kontuan hartuta ere, Patronatuak bere kideetako bategan edo batzuegan delega ditzake bere ahalmen eta botere guztiak edo hauen bat, kontu eta aurrekontuen onarpena eta Babesleztaren baimena behar duten edo

No obstante lo anterior, el Patronato podrá delegar en uno o varios de sus miembros, todas o alguna de sus facultades o potestades, a excepción de la aprobación de las cuentas y del presupuesto y de aquellos actos



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

**A 3726469**

Fundazioaren gestio arrunta gain-  
ditzen duten egintzak salbu.

que excedan de la gestión ordi-  
naria de la Fundación o necesi-  
ten de autorización del Protec-  
torado.

Aurreko paragrafoan aipatutako  
mugak kontuan hartuta, Patronatuak  
batzorde delegatu edo betearazle  
bat edo gehiago era ditzake, kasu  
bakoitzerako ahalmenak zehatzuz.  
Era berean, funtzio eta erantzuki-  
zun komun edo solidarioak izango  
dituzten ahaldun orokor edo bere-  
zietarako, kanpoko beste pertsona  
bat edo batzuk izendatu ahal izan-  
go ditu, fisiko zein juridikoak.

Con las limitaciones expresadas  
en el párrafo anterior, el  
patronato podrá asimismo cons-  
tituir una o varias comisiones  
delegadas o ejecutivas, con las  
facultades que en cada caso  
determine, así como nombrar  
apoderados generales o especia-  
les con funciones y responsabi-  
lidades mancomunadas o solida-  
rias, en persona o personas  
ajenas, ya sean físicas o ju-  
rídicas.

Ordezkarri eta ahaldun orokorren  
izendapen eta errelokazioak Fun-  
dazioen Erregistroan inskribatu  
beharko dira, auzitarako direnean  
salbu.

Las delegaciones y apoderamien-  
tos generales, salvo que sean  
para pleitos, así como revoca-  
ciones, deberán ser inscritos  
en el Registro de Fundaciones.

Patronatuko kideak musu truk ariko  
dira beren karguko lanetan.  
Nolanahi ere, funtzio horiek gau-  
zatzean sortutako gastuen zenbate-  
koa berreskuratu ahal izango dute,  
egoki azalduz gero.

Los miembros del Patronato  
ejercerán su cargo gratuitamen-  
te. No obstante, podrán ser  
reembolsados de los gastos de-  
bidamente justificados que el  
desempeño de sus funciones les  
ocasiona.

Patronatuko karguen iraupena bost  
urtekoa izango da, nahiz eta be-  
rriro ere epe bererako eta muga-  
gabe hautatua izan daitekeen.

El cargo de Patronato tendrá  
una duración de cinco años, si  
bien podrá ser reelegido, por  
períodos iguales, sin limita-  
ción.

Patronatuko kideak ezingo da  
inoiz delegatu.


El cargo de Patronato será siem-  
pre indelegable.

### 13. Artikulua. Patronatuaren esku- duntzak.

### Artículo 13.- Competencias del Patronato.

Ordezkatzeko, erabakitzeko eta  
administratzeko eskuduntzarik  
zabalenak erabiliz, Patronatuak  
era guztietako egintza edo zeregin  
juridikoak egin ahal izango ditu,  
legeak ezarritako mugak soilik

En el ejercicio de las más  
amplias facultades de represen-  
tación, disposición o adminis-  
tración, el Patronato podrá  
concluir toda clase de actos o  
negocios jurídicos sin otras



izanik.

14. Artikulua. Patronatuaren osae-  
ra.

Patronatua Estatutu hauetan aurreikusitako eran izendatutako hiru kidek edo Patronatu kidek osatuko dute gutxienez. Gehienez ere, hamabost kide edo Patronatu kide izango dira.

Lehen Patronatu kideak Sortze-Gutunean izendatuko dira bost urterako.

Aurrerantzean, Patronatu kideen izendapena Estatutuen 21. Artikuluen arabera egingo da.

15. Artikulua. Lehendakaria.

Patronatuak Lehendakari bat izendatuko du bere kideen artean, eta honen ardurapekoa izango da Patronatuaren bileretarako deia bere ekimenez edo kideen heren baten eskariz zabaltzea, baita bertako eztabaidak zuzendu eta akordioak gauzatzea ere.

Patronatuko Lehendakariak, organo honetako kide izateagatik dagozkion ahalmenez eta estatutu hauek esleitzen dizkionez gain, Fundazioa ordezkatzekoa ere badu, dela Patronatu-Batzordearen eta Fundazioaren beste zenbait organoren erabakien ondorio diren ekitaldi eta kontratuetan, dela gerta litezkeen auzi, espediente, jarduera administratibo, gobernatibo, judicial eta judizioz kanpokoetan, auzijartzaile nahiz demandatu gisa edo bestelako edozein izaerarekin, eta Prokuradore zein Abokatuak auzitarako orokorrean ahalduztzeko eskumena ere badu.

limitaciones que las establecidas por las leyes.

Artículo 14.- Composición del Patronato.

El Patronato estará formado al menos por tres miembros designados en la forma prevista en estos Estatutos. Como máximo podrán existir quince miembros del Patronato.

Los primeros miembros del Patronato se designarán en la carta fundacional por un plazo de cinco años.

En lo sucesivo, la designación se efectuará de acuerdo con el procedimiento establecido en el artículo 21 de los Estatutos.

Artículo 15.- El Presidente.

El Patronato elegirá de entre sus miembros un Presidente, a quien corresponderá el convocar al Patronato por propia iniciativa o a petición de una tercera parte de sus componentes, dirigir las deliberaciones y ejecutar sus acuerdos.

El Presidente del Patronato, además de las facultades que le corresponden como miembro de dicho órgano y las a él atribuidas por estos Estatutos, tiene la de representar a la Fundación en la celebración de cuantos actos y contratos deriven de los acuerdos de la Junta de Patronato y otros órganos de la fundación, así como en cuantos litigios, expedientes, cuestiones administrativas, gubernativas, judiciales y extrajudiciales se presentes, tanto como demandante o como demandado o con cualquier otro carácter, estando facultado para



4. MOTA  
4.ª CLASE



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

**A** 3726468

#### 16. Artikulua. Idazkaria.

Patronatuak bere kideen edo besteren artean Idazkari bat izendatuko du. Honen eginkizunak Fundazioaren lan administratiboan zuzendaritza, dokumentazioaren zaintza eta bilkuretako Aktak jasotzea dira. Hauek onartu eta Lehendakariaren oniritzia jaso ondoren, Akta-liburura transkribatuko dira.

#### 17. Artikulua. Lehendakariordea.

Patronatuak Lehendakariorde bat izendatu ahal izango du bere kideen artean, Lehendakaria kanpoan edo gaixorik denean bere ordeko izan dadin eta berak eskatuta lagun diezaion.

#### 18. Artikulua. Diruzaina.

Patronatuak diruzain bat izendatu ahal izango du bere kideen artean, Patronatuak definituko dituen funtzioak betetzeko.

#### 19. Artikulua. Patronatuaren jardun-arauak.

Patronatua urtean bitan gutxienez bilduko da. Urteko lehen hiru hilekoan nahitaez bilduko da aurreko ekitaldiko aurrekontu arruntaren eta balantzearen likidazioari eta urte horretako jardueren Memoriari onespena emateko.

otorgar poderes generales para pleitos a favor de Procuradores o Abogados al fin citado.

#### Artículo 16.- El Secretario.

El Patronato designará, bien de entre sus miembros o bien de entre terceras personas, un Secretario que tendrá a su cargo la dirección de los trabajos administrativos de la Fundación, custodiará la documentación y levantará Actas de las sesiones, que se transcribirán al Libro de Actas una vez sean aprobadas y con el visto bueno del Presidente.

#### Artículo 17.- El Vicepresidente

El Patronato podrá designar de entre sus miembros un Vicepresidente, quien sustituirá al Presidente para los supuestos de ausencia o enfermedad de éste, y le ayudará en cuantos asuntos sea requerido a ello por éste.

#### Artículo 18.- El Tesorero.

El Patronato podrá designar de entre sus miembros un Tesorero con las funciones que el Patronato le encomiende.

#### Artículo 19.- Régimen de funcionamiento.

El Patronato celebrará un mínimo de dos reuniones anuales. En los tres primeros meses de cada año se reunirá necesariamente con objeto de aprobar la liquidación del presupuesto ordinario y balance correspondiente al ejercicio anterior, así como la Memoria de actividades para el año en curso.



Lehendakariak egingo ditu bilera-deialdiak, bilera-data baino hamar egun lehenago gutxienez eta eguneko Gai-Zerrenda bertan adieraziz.

## 20. Artikulua. Eraketa eta akordioak.

Patronatuaren eraketa baliozkotzat jotzeko, lehenengo deialdian bere kideen erdia gehi bat behar da; bigarren deialdian, berriz, edozein gehiengo nahikoa izango da.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa kontuan hartuta ere, Patronatua deitutzat eta balioz eratutzat joko da bere kide guztiak bertaratu eta bilera egitea aho batez onartzen dutenean.

Akordioak botoen gehiengoaren bidez erabakiko dira, ondorengo kasuetan izan ezik:

a) Estatutuen aldaketei, Fundazioaren fusio edo iraungipenari, patronatu kideak izendatzeari (bai Patronatua zabaltzeko bai kideak ordezkatzeko edo dauden hutsuneak betetzeko) eta sortzaile-izaerako eskaeren onespenei buruzko akordioetan. Kasu hauetan, Patronatuko kideen hiru laurdenen aldeko botoa beharko da, gutxienez.

b) Aldeko botoen bestelako gehiengo edo quorum bat ezarria duen edozein akordiotan.

Lehendakariaren botoak argituko

Las convocatorias se realizarán por el Presidente con una antelación mínima de diez días a la fecha de la reunión y deberá constar en ellas el Orden del Día.

## Artículo 20.- Constitución y adopción de acuerdos.

El Patronato estará válidamente constituido cuando concurren la mitad más uno de sus componentes, en primera convocatoria, y con cualquier número de asistentes en segunda convocatoria.

Con independencia de lo dispuesto en los párrafos precedentes, el Patronato se entenderá convocado y quedará válidamente constituido cuando estén presentes todos sus miembros y acepten unánimemente la celebración de la reunión.

Los acuerdos se tomarán por mayoría de votos, salvo que se trate de alguno de los siguientes supuesto:

a) Acuerdo de modificación de Estatutos, fusión o extinción de la Fundación, nombramiento de patronos, bien por ampliación del Patronato bien por sustitución de sus miembros o por cubrir las vacantes existentes, aprobación de adhesiones con el carácter de fundadores, que requerirán como mínimo el voto favorable de tres cuartas partes de los miembros del Patronato.

b) Cualquier otro acuerdo que tenga establecido un quórum o mayoría favorable de votos diferentes.

El voto del Presidente dirimirá



4. MOTA

4.ª CLASE



JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Fundaciones del País Vasco

Notaria erabilerarako soilik.

Para uso exclusivo notarial.

**A** 3726467

ditu berdinketa-kasuak.

los empates que puedan producirse.

21. Artikulua. Patronatu-kide berriak izendatu eta hutsuneak betetzea.

Artículo 21.- Nombramiento de Patronos y designación de vacantes.

Patronatua zabaldu edo bertako kideak ordezkatu behar direnean, patronatu kide berriak izendatzeko akordioa Patronatuak hartu beharko du, gutxienez bere kideen hiru laurdenen aldeko botoez.

En los casos en los que haya que aumentar el número de miembros del Patronato o sustituir algunos de los que ya existen, el acuerdo deberá adoptarse por el Patronato con el voto favorable de al menos tres cuartas partes de los miembros del mismo.

Heriotza, ezgaitasun, desgaituntza, agintaldiaren iraungipen, kargu uzte, kargutik kentze edo Patronatuaren kide izateari uzteko beste edozein arrazoi dela kausa gertatzen diren hutsuneak betetzeko erabakia ere organo honi beroni dagokio, gutxienez bere kideen hiru laurdenen aldeko botoez hartutako akordioaren bidez.

Para cubrir las vacantes que ocurran en el Patronato por razón de fallecimiento, incapacidad, inhabilitación, transcurso del plazo para el que ha sido nombrado, dimisión, cese en el cargo o cualquier otra razón que implique abandono del mismo, le corresponde adoptar la decisión al Patronato en virtud de acuerdo adoptado con el voto favorable de tres cuartas partes de los miembros del mismo.

Aurrekoa kontuan hartuta ere, hutsuneak gertatzen direnean Patronatuak kide berriak izendatu edo hutsuneak ez betetzea hauta dezake, betiere, hiru kideko gutxieneko mugaraino.

Asimismo, en los supuestos en que existan vacantes en el Patronato, éste podrá designar nuevos miembros, o bien a su elección no cubrir dichas vacantes, siempre con el límite mínimo de tres miembros del Patronato.

22.- Artikulua. Aholkularitza Batzordea.

Artículo 22.- Consejo Asesor.

Fundazioak, bere patronatuaren bidez, iruditzen zaion pertsona fisiko edo juridikoak aukera ditzake Aholkularitza Batzordea osatzeko. Organo hau Patronatuak deituta urtean behin gutxienez bilduko da, eta aholkularitza izaera soilik izango du. Aholkularitza Batzordean, eginkizun diren ekimenen

La Fundación, a través de su Patronato, podrá designar a las personas físicas o jurídicas que crea convenientes para constituir el Consejo Asesor de la Fundación, órgano con carácter exclusivamente consultivo que se reunirá al menos una vez al año, a convocatoria del Patronato. En este órgano, se re-

inguruko iritzi eta ekarpenak bilduko zaizkie bertako kideei, betiere Fundazioaren helburuak betetzeko bidean. Fundazioko Aholkularitza Batzordeko kideek Patronatuak aukeratuak eta erabateko gehiengoz onartuak izango izan beharko dute. Fundazioko Aholkularitza Batzordeko kideek ez dute inolako ekarpen ekonomikorik egin beharrik izango.

### III. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN XEDEA ETA ONURADUNAK

#### 23. Artikulua. Xedea eta onuradunak.

Fundazioaren helburua interes orokorrekoa da, eta Fundazioaren onuradun edozein pertsona natural edo juridiko izan daiteke, inolako diskriminaziorik gabe.

Fundazioak bere onuradunei emandako zerbitzuen truke zenbateko bat ordaintzea galdatzen dienean, zenbateko horren ordainketa edo abonua egitearren bakarrik zehaztuko ditu Fundazioak onuradunak. Era berean, Fundazioak eskainitako zerbitzuen eta onuradunen kopurua mugatu beharra dagoenean, hauek hautatu eta zehaztea Fundazioaren Patronatuari dagokio, eta ez da atzera egiterik izango erabaki horretan. Horretarako, hautagai bakoitzaren meritua, premia, gaitasun ekonomiko eta aprobetxamendurako aukerak edo beste ezaugarri objektiboak baloratuko ditu. Nolanahi ere, inork ezin izango du Fundazioaren edo bere organoen aurrean alegatu onura horien gozamenaren, ez indibidualki ez taldean ere, ematen diren arte, ezta pertsona jakinei hauek esleitzea ezarri ere.

cabara la opinión, colaboración y aportación de sus miembros sobre iniciativas a realizar por la Fundación en aras de cumplir con sus objetivos. Para ser miembro de este Consejo Asesor se requerirá la designación del Patronato y ser admitido por éste, por mayoría absoluta. La admisión en este Consejo Asesor de la Fundación no implica aportación económica alguna.

### CAPITULO III.- FINALIDAD Y BENEFICIARIOS DE LA FUNDACIÓN.


#### Artículo 23.- Finalidad y beneficiarios.

La finalidad de la Fundación sirve a un interés general, y podrán ser beneficiarios de la Fundación cualesquiera personas naturales o jurídicas, sin discriminación alguna.

Cuando la Fundación exija a sus beneficiarios el abono de alguna cantidad por los servicios que preste, la determinación por ésta de los beneficiarios se deberá exclusivamente realizar por el pago o abono de la cantidad correspondiente. Asimismo, cuando por la propia naturaleza de los servicios prestados por la Fundación, se derive la necesidad de limitar el número de sus beneficiarios, la determinación y la selección de éstos se realizará con carácter irrevocable por el Patronato de la Fundación, teniendo presentes los méritos, necesidades, capacidad económica y posibilidad de aprovechamiento por los distintos aspirantes, o en base a otras características objetivas. En todo caso, nadie podrá alegar, ni individual ni colectivamente,



4. MOTA  
4.º CLASE



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

A 3726466

#### IV. KAPITULUA. ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

##### 24. Artikulua. Fundazioaren ondarea.

Fundazioaren ondarea indarrean dagoen legeriak baimentzen dituen era guztietako ondasun eta eskubideez izango da.

Ondorengoek osatzen dute Fundazioaren ondarea:

a) Sortze-eskrituran jasotzen den hasierako zuzkidurak.

b) Kide sortzaile eta atxikien ekarpen eta kuota arrunt eta ezohikoek eta Patronatuaren kideek beren borondatez egin nahi dituzten ekarpen eta ordaindu nahi dituzten kuota arrunt eta ezohikoek.

c) Etorkizunean Fundazioak entitate publiko edo pribatutatik edo partikularrengandik eskura ditzakeen kostu bidezko edo borondatezko beste edozein ondasun edo eskubidek, bereziki subentzio, dohaintza edo legatuek. Dohaintza, legatu eta herentzien onarpena Babesletzari jakinarazi beharko zaio.

d) Fundazioak egindako jarduerak eta ondarearen fruitu edo errentek, produktu edo irabaziek eta eman ditzakeen zerbitzuengatik ordainketek, betiere indarrean dagoen legeriaren arabera.

frente a la Fundación o sus órganos el goce de dichos beneficios antes que fuesen concedidos, ni imponer su atribución a personas determinadas.

#### CAPITULO IV.- PATRIMONIO Y RÉGIMEN ECONÓMICO.

##### Artículo 24.- El patrimonio de la Fundación.

El patrimonio de la Fundación podrá estar constituido por toda clase de bienes y derechos permitidos por la legislación vigente.

El patrimonio de la Fundación estará integrado por:

a) La dotación inicial recogida en la escritura fundacional.

b) Las aportaciones y cuotas, ordinarias y extraordinarias, de los miembros fundadores y adheridos, y las cuotas y aportaciones, ordinarias y extraordinarias, que acepten satisfacer voluntariamente los miembros del Patronato.

c) Cualquier otro bien o derecho que en lo sucesivo adquiera la Fundación a título oneroso o gratuito, de entidades públicas o privadas y de particulares, en especial subvenciones, donaciones, herencias o legados. La aceptación de donaciones, legados y herencias deberá ser puesta en conocimiento del Protectorado.

d) Los frutos o rentas, productos o beneficios del patrimonio y de las actividades que realice la Fundación, así como las remuneraciones de los servicios que pueda prestar, de acuerdo con la legislación vi-



gente.

## 25. Artikulua. Ondarearen zaintza.

Fundazioaren ondarea zaintzeko ondorengoak izan beharko dira kontuan:

a) Sortze-ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak Fundazioaren izenean egongo dira, eta bere inbentarioan jasoko dira. Gainera, eta hala dagokienean, bakoitzari dagokion Erregistroan inskribatuko dira.

b) Ondasun higiezinak eta/edo eskubide errealak Jabetza Erregistroan inskribatuko dira Fundazioaren izenean. Inskribagarriak diren gainerako ondasunak, dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.

c) Balioak Patronatuak izendatutako finantza erakundeetan gordailatuko dira. Gainerako ondasun higigarri, jabetza-titulu, gordailu-egiaztagiri eta jabari, edukitza, usaera, gozamen edo Fundazioaren beste edonolako eskubide frogatzen duen edozein dokumenturen zaintza Patronatuaren edo honek eskuordetutako pertsonaren ardura da.

d) Fundazioaren ondasun eta eskubide guztiak Patronatuaren idazkariaren ardurapeko erregistro-liburuan jasoko dira.

e) 12/1994 Legearen, ekainaren 17koaren, 22. Artikuluak biltzen dituen egintza guztiak Fundazio Erregistroan jasoko dira; hala dagokienean, bakoitzari dagokion Erregistroan egindako inskripzioa ere egin ahal izango da.

## Artículo 25.- Salvaguarda del patrimonio.

Para la salvaguarda del patrimonio de la Fundación se observará lo siguiente:

a) Los bienes y derechos que integran el patrimonio fundacional deberán estar a nombre de la Fundación y habrán de constar en su inventario y ser inscritos, en su caso, en los Registros correspondientes.

b) Los bienes inmuebles y/o derechos reales se inscribirán a nombre de la Fundación en el Registro de la Propiedad. Los demás bienes susceptibles de inscripción se inscribirán en los registros correspondientes.

c) Los valores se depositarán en establecimientos financieros designados por el patronato. Los demás bienes muebles, títulos de propiedad, resguardos de depósito y cualesquiera otros documentos acreditativos de dominio, posesión, uso, disfrute o cualquier otro derecho de la Fundación, serán custodiados por el Patronato o persona en quien éste delegue.

d) Todos los bienes y derechos de la Fundación habrán de inventariarse en un libro-registro que llevará el Secretario del Patronato.

e) Los actos comprendidos en el artículo 22 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, se harán constar en el Registro de Fundaciones, sin perjuicio de la inscripción, cuando proceda, en el Registro correspondiente.



4. MOTA

4.ª CLASE



Notaria erabilerarako soilik.

Para uso exclusivo notarial.

**A** 3726465

## 26. Artikulua. Erregimen ekonomiko.

Patronatuak urtero egingo ditu Fundazioaren egoera ondarezkoa, ekonomikoa eta finantzarioa jasoko dituzten inbentarioa, egoera-balantzea eta emaitza kontua, alde batetik eta, beste aldetik, fundazioaren helburua betetzen ari dela azaldu eta frogatzen duen ekitaldi ekonomikoari dagokion Memoria. Memoriak finantza taulak eta ondarean eta gobernu edo zuzendaritza-organoetan izandako edozein aldaketa jasoko ditu.

Horrez gain, Patronatuak ondorengo ekitaldirako gastu eta sarreraren aurrekontu bat prestatuko du urtero, Memoriarekin batera, Babesletzari aurkezteko, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Gastu eta sarrera arruntak jasotzen dituen aurrekontuan Fundazioak edozein kontzepturengatik eskuratzen dituen sarrerak agertuko dira eta sarreraren soberakinak Fundazioaren ondarea handitzeko erabili ahal izango dira.

Ekitaldian zehar, Patronatuaren Juntak sortzen diren beharretara egokitze beharrezko edo egoki deritzen aldaketak egin ahal izango ditu aurrekontuan.

Patronatuak ezohiko aurrekontuak prestatuko ditu ezohiko jarduerak egiteko beharrezkoak direnean. Aurrekontu guztiek, arruntek zein

## Artículo 26.- Régimen económico.


El Patronato confeccionará anualmente el inventario, el balance de situación y la cuenta de resultados, en los que se reflejará la situación patrimonial, económica y financiera de la Fundación, así como una Memoria de las actividades realizadas durante el ejercicio económico, suficiente para conocer y justificar el cumplimiento de la finalidad fundacional. La Memoria comprenderá el cuadro de financiación, así como cualquier alteración, ya sea patrimonial o de su órgano de gobierno o dirección.

Asimismo, el patronato confeccionará anualmente un presupuesto de gastos e ingresos, correspondiente al ejercicio siguiente, que se presentará al protectorado, junto con una Memoria explicativa, de acuerdo con la legislación vigente.

En el presupuesto ordinario que recoja los ingresos y gastos de este carácter, figurarán cuantos ingresos perciba la Fundación por cualquier concepto, pudiendo destinarse los excedentes de ingresos al aumento del patrimonio de la Fundación.

Durante el ejercicio, la Junta del Patronato podrá introducir en el presupuesto las modificaciones que estime precisas o convenientes para acomodarlo a las necesidades y atenciones que se deban cubrir.

El Patronato confeccionará, en su caso, los presupuestos extraordinarios que sean necesarios para el desarrollo de ac-



JUSTIZIA, LAN-ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Fundaciones del País Vasco

ohizkanpokoek,  
beharko dute.

orekatuak

izan

tividades extraordinarias. Los presupuestos, tanto ordinarios como extraordinarios, habrán de ser nivelados.

Fundazioaren sarreraren erabilera 12/1994 Legeak, ekainaren 17koak, 30. Artikuluan xedatutako aurreikuspenen arabera egingo da.

El destino de los ingresos de la Fundación deberá cumplir las previsiones fijadas en el artículo 30 de la Ley 12/1994, de 17 de junio.

Ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen hiru hilabeteetan Patronatuak aurreko ekitaldiko aurrekontu arruntaren likidazioa eta balantzea egingo ditu, eta ekitaldi horretako jardueren eta gestio ekonomikoaren Memoria, zeinek Fundazioaren helburua gauzatzeari eta Fundazioaren ondarearen egokiarari buruzko ikuspegia lortzeko nahikoa informazio bilduko baititu.

Dentro de los tres primeros meses de cada ejercicio económico, el Patronato hará la liquidación del presupuesto ordinario y balance correspondiente al ejercicio anterior, así como una Memoria de las actividades efectuadas durante dicho ejercicio y de la gestión económica, con información suficiente para obtener una representación del cumplimiento del objeto fundacional y de la situación patrimonial de la Fundación.

#### V. KAPITULUA. ALDAKETA, FUSIOA ETA IRAUNGIPENA

#### CAPITULO V.- MODIFICACIÓN, FUSIÓN Y EXTINCIÓN.

##### 27. Artikulua. Estatutuak aldatzea.

##### Artículo 27.- Modificación de estatutos.

Patronatuak Estatutu hauek aldatu ahal izango ditu, betiere, Fundazioaren helburua hobeto betetzeko xedearekin. Aldaketarako akordioa gutxienez bere kideen hiru laurdenen aldeko botoekin hartuko da.


El Patronato podrá promover la modificación de los presentes Estatutos siempre que resulte conveniente para el mejor cumplimiento del objeto fundacional. El acuerdo de modificación deberá ser adoptado con el voto favorable de tres cuartas partes de sus miembros, como mínimo.

##### 28. Artikulua. Fusioa, elkarketa edo federazioa.

##### Artículo 28.- Fusión, unión o federación.

Era berean, Patronatuak antzeko helburuak dituen beste entitate batekin edo zenbaitekin fusioatzea, elkartzea edo federazioa sortzea erabaki dezake, betiere Fundazioaren helburua behar bezala

También podrá el Patronato acordar la fusión, unión o federación con otra u otras entidades que persigan fines similares, siempre que quede atendido en la debida forma el



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

**A 3726464**

4. MOTA

4.º CLASE

jasotzen dela ziurtatuz. Akordioak gutxienez bere kideen hiru laurdenen aldeko botoak beharko ditu.

Fusioaren kasurako akordioa arrazoitua izango da, eta Babesle-tzaren onarpena beharko du indarrean dagoen legeriaren arabera.

#### 29. Artikulua. Iraungipena.

Fundazioa ondorengo arrazoi hauen-gatik iraungi daiteke:

- a) Ondarearen likidazioa.
- b) Legezko xedapena.
- c) Ebazpen judizial irmoz desegiten denean.
- d) Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera erabakitako fusio prozesu baten ondorioz.
- e) Patronatua ez den eta honen onespén espresik gabeko pertsona, agintaritza edo beste jurisdikzio bat, sortze-gutunak edo Estatutu hauek xedatutakoa errebokatzen okertzen edo aldatzen saiatzen denean.
- f) Fundazioaren baliabideen eskasia edo beste edozein arrazoi dela medio, sortze-gutunean eta Estatutu hauetan jasotzen diren aurreikuspenen arabera, Fundazioaren helburua betetzea ezinezko gertatzen denean eta, betiere, Patronatuak bere kideen hiru laurdenen aldeko gehiengoarekin Estatutuak aldatzea edo beste Fundazio batekin fusionatu edo elkartzea erabakitzen ez baldin badu.

objeto fundacional. La adopción del acuerdo precisará del voto favorable de tres cuartas partes de sus miembros, como mínimo.

En el supuesto de fusión, el acuerdo correspondiente se adoptará motivadamente y deberá ser aprobado por el protectorado, de acuerdo con la legislación vigente.

#### Artículo 29.- Extinción.

La Fundación se extinguirá por las siguientes causas:

- a) Liquidación del Patrimonio.
- b) Disposición legal.
- c) Cuando sea disuelta por resolución judicial firme.
- d) Cuando así resulte de un proceso de fusión acordado conforme a lo establecido en el artículo anterior.
- e) Cuando las disposiciones de la carta fundacional o de los presentes Estatutos pretendan ser revocados, alterados o modificados por persona, autoridad o jurisdicción distinta del Patronato y sin expreso consentimiento de éste.
- f) En el caso que por insuficiencia de los medios que disponga la Fundación o por cualquier otra circunstancia, resultara imposible el cumplimiento del fin fundacional, de acuerdo con las previsiones de la carta fundacional y de los presentes Estatutos, y siempre que el Patronato no acordara por mayoría de tres cuartas partes de sus componentes la modificación de los Estatutos o la fusión con otra Fundación.

#### 30. Artikulua. Prozedura.

#### Artículo 30.- Procedimiento.



JUSTIZIA, LAN-ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAIA  
Eusko Herriko Fundazioen Erregistroa  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Fundaciones del País Vasco

Fundazioa iraungitzeko espediente bat irekiko da, eta bertan honako hauek jasoko dira:

a) Horretarako zioaren azalpen arrazoitua.

b) Fundazioaren balantzea.

c) Likidatzaileak izendatzeko proposamena, hauen jarduera-programa eta Fundazioaren ondarearen edo honen salmentaren ekoizkinen banaketarako proiektua. Aipatutako banaketa edo esleipena Patronatuak erabaki eta egingo du askatasun osoz, ondare horren onuradunak interes orokorreko beste ekintza zein erakunde batzuk izendatuz. Hori izan ezean, legeak aurreikusitakoaren arabera eta antzeko helburuak, alegia, Sortze-Gutunean adierazitako helburu edo xede berberak dituzten eta Fundazioak egiten zituen egitasmoen parekoak egiten dituzten beste Fundazio pribatuak edo irabazi asmorik gabeko eta interes orokorreko erakunde pribatuak izango diren onuradunak.

Para la extinción de la Fundación se incoará un expediente, que comprenderá necesariamente:

a) La exposición razonada de la causa que lo determina.

b) El balance de la Fundación.

c) La propuesta de designación de liquidadores, el programa de su actuación, y el proyecto de distribución del patrimonio de la Fundación o del producto de su venta, distribución o atribución que se llevará a cabo por el Patronato, con total libertad designando beneficiarios de dicho Patrimonio a otras entidades o actividades de interés general. En su defecto, en la forma prevista por la Ley, serán beneficiarios del mismo otras Fundaciones o entidades privadas sin ánimo de lucro y de interés general, que desarrollen finalidades semejantes a las que realice la Fundación y que tengan los objetivos o finalidades establecidas en la carta fundacional.

 Juan Antonio 